

Bertaratuak: Aritz Otxandiano, Kepa Gonzalez de Audikana, Urtzi Armendariz, Oier Nafarrate, Irati Axpe, Iñaki Pujana, Miren Urigoitia, Arkaitz Carrasco, Pello Otxandiano, Amaia Lopez de Heredia, Kimetz Munitxa.

1. Garapen teknikariaren lanaren deskargoa

Mainondoko futbol zelaiko belar artifizialaren prozesuan aritu da. Vulkano eta Udalaren arteko hitzarmena bideratu da. Belarraren instalaziorako aurrekontua dago. Instalazioa auzolanean egiteko aukera aztertzen ari da.

Zalantza sortzen da gai hau Herri-olaren espazioan sartzen den edo ez. Mainondo prozesuaren barnean kokatu daiteke, herritarren iniziatiba izan da. Hala ere, foro honek plano estrategikoari heldu behar dio. Ekintza zehatzen jarraipena egitea ez dagokio marko honi.

Dirulaguntza lineak atera dira abuztuan (turismoa, ingurumena, paisaiagintza, kartografia digitala GIS). Batez ere dirulaguntza hauetan aurkezteko beharrezko dokumentazioa osatzen aritu da.

2. Arnasa prozesuaren ildo nagusi eta proiektu posibleen azalpena

“Bestelakoak” atalean aurkitzen den “Arnasa: Lan ildoak eta proiektuak 2015/06/29” dokumentua erabili da. Teknikariak orain arte egin diren harremanetan atera diren proiektu desberdinen deskargoa egin du. Honetxek dira:

1. Ibilbide urbanoa.
2. Bertako komertzioen arteko harremanak berraztertu.
3. Turismo bulegoa. Kudeaketa zein den ez dakigu. Kokalekua ere ez dago zehaztuta. Hausnarketa bat eman behar da. Eskualde ikuspegia izan behar du?
4. Turismo bulego birtuala.
5. Herriko seinaliztapena eta mendiko ibilbideen seinaliztapena (kirola, natura, kultura, etb.).
6. P2P turismo trukaketa (zein herrirekin lan egin ahal da?) Bergako (Katalunia) herritar batekin harremana egin da.
7. Harrera zentroa mendiko aktibitateen inguruan.
8. Irudi korporatiboa landu behar da turismo seinaliztapenerako.
9. Hitzarmenak herriekin (inguruko herriak, turismo kolaboratiboa). Ondarru eta Ea-ko udalerrien aukerak aipatzen dira. Ea-k Otxandiorekin harremana izan nahiko leuke.
10. Kanping-a. Horrelako proiektu batek herriari zer aportatuko lioke? Urte osoko bizitza izan beharko luke. Ez dago merkatu azterketarik, zein negozio eredu, etb.
11. Udalekuak antolatzea elkarte desberdinekin (Ikastolen Elkarte aipatu da).

12. Earthship proiektua aipatzen da. Earthship kontzeptuaz dagoen eraikin bat birgaitzeko aukera aztertu zen, eraikin horri gero erabilera publikoa emanaz.
13. Bertako karramarroa errekuaratzeko proiektu bat zeukan herritar batek. Ur kontinentalen inguruko museo bat ere bazegoen. Hau Earthship-arekin lotu liteke eta eskolei begirako zentru bat egin.
14. Uretako ekintzen elkarte bat sortu Uribarriko urtegiaren aprobetxamendurako.

Teknikariaren azalpen honen ondotik Arnasa prozesuaren egungo egoeraren inguruko eztabaida eman da:

Turismo estrategia bat faltan botatzen da: iparrak, ildoak, ekintzak, etb.

Teknikariak bere azalpena osatu du:

- Zer ez dugu nahi eta zer nahi dugu definitu zen.
- Turismo Patzuergo bat sortzea jarri zen mahai gainean. Ondarruko eredu interesgarritzat jotzen da.
- Turismo aktibo ez inbasiboa bilatzen da.
- Egun pasako turismoari erantzuteko zer egin behar dugu.
- Bulegoa irekia izan beharko litzake (centro de acogida al visitante).
- Turismo "afin": Errealitate soziopolitikoaz harremana daukan beste herri batzuekin hartu-emonak.
- Herriari zer ematen dio?

Arnasa batzordeak zer funtzio bete behar dituenaren inguruko eztabaida eman da. Orain arteko funtzionamoldea ez da ona izan. Batzordeak lehenik eta behin turismo strategiaren zirriborro bat landu behar du. Orain arte dagoena ideia eta proiektu inkonexoak dira.

Udan dirulaguntza linea batzuk atera dira turismoari lotuta. Udala aurkeztu da linea horretara baina bide orri baten faltan.

3. Lurra prozesuarekin lotutako zenbait gairen inguruko azalpena

"Capital ambiental y biodiversidad" eta "Educación ambiental" atalei buruzko dirulaguntzak atera dira. Lehenari dagokionez "Lugar de interés comunitario" deritzon babesa badauka prioritatea dauka. Pantano muturrak horrela babestuta daude. Mutur horiek CEC dira eta horrek ekintza plan batekin datoz.

Udala dirulaguntza horietara aurkeztu da. Plan integral bat idatzi da ekintza plan horrei heltzeko. Hurrengo batzorde baten kontu zehatza emango da.